

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Luisa Jaka Legorburu

*Donostia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Karmengo Ama kalean bizi zen umetan, Jose Leonenea etxean, Egia auzoan. Baina jaio, Aldakoneako maternitatean jaio zen; lehenengotakoa izan zen. Ama Idiazabalgoa zuten, eta aita Betelukoa; aita Lasarte garraio-negozioa zeukan, kamioiak. Bi senide ziren, bi neska. Ametzagañako mojetara joan zen eskolara, eta 12 urterekin Pedro Rodriguezen jostundegian hasi zen lanean; lehenengo enkarguak egiten, eta gero josten. Zapata-denda batean ere egon zen, dependienta. Ezkondu zenean, lana egiteari utzi zion. Juan Murorekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten (bi umetan hil ziren). Ametzagañan bizi dira.

Zintak

DON-091

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-10
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Karmengo Ama kalea nolakoa zen

- **Erref:** DON-091/002
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Aldakoneako ama-etxean jaioa da (orain Nazaret). Karmengo Ama kalean bizi ziren, Joseleonenea etxean. Kale hori nolakoa zen. Altuna marmol

lantegiak sortutako lur faltua. Kanposantu ondoan baserri bat zegoen. Desagertutako etxeak.</p>

2. Altuna marmol lantegia

- **Erref:** DON-091/003
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

<p>Altuna marmol lantegia. Kanposanturako egiten zuten lana batez ere: lapidak eta eskulturak. Agirre eta Eguren lantegiak ere bazeuden. Txingotan jolasteko txingoak egiten zizkieten umeei. Emakumeen lana zein zen Altunanean. Usin artista.</p>

3. Bainuak eta labaderoa

- **Erref:** DON-091/004
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:07:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Joseleoneneak sei solairu zituen. Komuna bazuten, dutxarik ez. Bainu publikoak zeuden Atotxan. Labaderoa non zegoen.

4. Ama neskame ibilia, aita garraiolari

- **Erref:** DON-091/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:07:43. **Bukatu:** 00:09:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bi ahizpa ziren. Ama Idiazabalgoa zuen eta aita Betelukoa. Ama neskame etorri zen Donostiara eta aita ere lanera, Pasaia. Garraiolaria zen. Harria eta tabakoa garraiatzen zituen.

5. Tabakalerako emakumeak

- **Erref:** DON-091/006
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:09:33. **Bukatu:** 00:11:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Tabakaleran emakume asko zebilen lanean. Jose Mujika fraidearekin gertatutako anekdota kontatzen du. Toki askotatik etortzen ziren Tabakalerara. Amaren lagun bat ere ibili zen, gerran alargundu ondoren. Puroak egiten zituen. Ducados marka.

6. Umetako jolasak I

- **Erref:** DON-091/009
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:13:28. **Bukatu:** 00:15:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Klean ibiltzen ziren beti. Amak ez zion asko uzten. Altuna lantegiko lur faltsuetan erori zen birritan; toki arriskutsua zen.

7. Umetako jolasak II

- **Erref:** DON-091/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:15:52. **Bukatu:** 00:16:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasten batzuetan; haserretu ere egiten ziren. Bi bakarrik ziren euskaldunak, eta ezin zuten euskaraz egin.

8. Moja ikastetxean

- **Erref:** DON-091/012
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Moja ikastetxean ibili zen. Jaunartzea egin arte, mutilak ere ibiltzen ziren. Batxilergoa ikasteko Artzain Onaren ondora joan behar zuten, institutora. Bera 12 urterekin hasi zen lanean, eta gustura. Mojak zorrotzak ziren.

9. Pedro Rodriguez jostundegian lanean

- **Erref:** DON-091/013
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Pedro Rodriguez jostundegian hasi zen lanean, 12 urterekin. 40 baino gehiago ziren josten; mozten zuena gizonezkoa zen, beste denak emakumeak. Bizilagunak han zebiltzan lanean. Han ikasi zuen josten. Goi mailako jostundegia zen; Fabiola eta Francoren emaztea joaten ziren. Jostundegia non zegoen azaltzen du. Balenciagarekin batera, hori zen ezagunena. Urtebetez enkarguak egiten hasi zen eta gero josten hasi zen. Ministroen emazteak joaten ziren.

10. Pedro Rodriguez jostundegian lanean II

- **Erref:** DON-091/014
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Oporrak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Lehengo moda eta oraingoa antzekoa zela dio, bueltatu egiten dela. Ezkontza soineko zuriak egiten zituzten. Bezero denak dirudunak ziren, batzuk bertan bizi zirenak eta besteak oporretan Donostian egoten zirenak. Orduko hotelak: Continental, Londres, Maria Cristina... Arropa eramatera joaten ziren, egurrezko kaxetan.

11. Pedro Rodriguez jostundegian lanean III

- **Erref:** DON-091/015
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:24:54. **Bukatu:** 00:27:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

40 langile ziren Pedro Rodriguez jostundegian. 12-13 urterekin hasi zen, baina berez 14 arte ezin zen. Sastreteria eta modistegia zeuden. Sastrerian egon zen bera. Tela Bartzelonatik bidaltzen zieten. Pedro Rodriguez nolakoa zen; valentziarra zen, eta udan soilik etortzen zen, eta Principe de Saboya hotelean egoten zen.

12. Dotrina eta frantziskotarrak

- **Erref:** DON-091/016
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:27:26. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Dotrina eskolan bertan ikasten zuten. Ostegun arratsaldea jai zuten eskolan, eta dotrinara joaten ziren, frantziskotarrengana. Emakume katekistak zeuden han. Erdaraz zen dena. "Aita gurea" amak erakutsi zion umetan. Fraideek bazekiten euskaraz. Fraide batzuen abizenak esaten ditu. Sermoi berdugarriak egiten zituzten batzuek. Misioak. Dena bekatu zen.

13. Hernanira eta Erreteriarra dantzara

- **Erref:** DON-091/018
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:32:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Konstituzio plazara joaten ziren (Ansorena zen txistularia)... eta gero Hernanira edo Erreteriarra. Hernanin mutilek ordaindu egiten zuten dantza egiteagatik. Hernanin giro euskalduna egoten zen udan. Bederatzietarako etxean.

14. Etxeko ohiturak

- **Erref:** DON-091/019
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:34:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Etxean arrosarioa errezatzeke ohitura eta ogiari gurutzea egitekoa. Ur bedeinkatua. Erramua jartzen zuten etxe barruan eta aitaren kamioian.

15. San Joan sua

- **Erref:** DON-091/020
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:34:34. **Bukatu:** 00:36:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Joan sua. Auzoko emakume batek lastozko panpina egiten zuen, erretzeko. Bost etxe handi zeuden Karmengo Ama kalean, eta ume asko elkartzen ziren. Zer kantatzen zuten. Etorkinak. Bi ziren euskaldunak.</p>

16. Teila lantegia eta goma lantegia

- **Erref:** DON-091/021
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:36:48. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Teila lantegia ezagutu du, erainika eta tximinia, baina martxan ez. Karmengo Ama kalean goma lantegia zegoen; uhalak egiten zituzten.

17. Serenoak eta faroleroak

- **Erref:** DON-091/022
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Serenoa Karmengo Ama kalean bizi zen, baina ez zen han ibiltzen; arotza ere bazen. Egian bazen serenoa, baina beraien kalean ez, mendialdea zelako. Faroleroak.

18. Kanposantua eta hiletak

- **Erref:** DON-091/023
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:42:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Kanposantura zaldi-karrotan eramaten zituzten hilkutxak. Batzuk oso dotoreak ziren. Gertukoak bizkarrean eramaten zituzten. Hilkutxaren atzetik familiakoak joaten ziren, gizonak aurretik. Hildakoari erramua eta ur bedeinkatua. Hildakoak etxeetan hiltzen ziren, eta beraiek ikustera joaten ziren. Ospitalea non zegoen, Grosen.

19. Lehengo gaixotasunak eta medikuak

- **Erref:** DON-091/024
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:42:46. **Bukatu:** 00:46:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

60 urterekin zaharrak ziren lehen. Medikuak etxez etxe ibiltzen ziren. Cilveti zen beraien medikua. Oinez joaten zne, autobusik ez baitzen orduan. Ama gaixotu zenekoa kontaktzen du, guardia armatu batek ekarri zuela etxera ondoezik.

20. Gerraosteko gosea

- **Erref:** DON-091/026
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:46:33. **Bukatu:** 00:49:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ondoko kontuak. Gose handia zen eta amak ez zion uzten meriendarekin jaisten. Alaba bakarra zen, eta ez zitzaion jatekorik falta. Lizarra ondora joaten zen harri bila, eta artzainak mendira igotzen zituen; gazta ematen zioten eta etxeko txorizoa ere bai. Amak etxean egiten zuen xaboia.

21. Sendabelarrak

- **Erref:** DON-091/027
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:49:08. **Bukatu:** 00:51:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Sendabelarrak. Pareta belarra infusioan hartzen zuten. Berbena belarrarekin ukendua egiten zuen aitak. Enplastoak ere egiten zituzten, mostaza eta linazarekin. Etxean egindako "cuenta-gotas".

22. Ekonomia eta ikatza

- **Erref:** DON-091/028
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:51:51. **Bukatu:** 00:53:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Ekonomia zuten etxean. Ikatza eta egurra erabiltzen zuten. Ikatza nondik ekartzen zieten. Butanoa gauza handia izan zela dio.

23. Irratia eta irratsaioak

- **Erref:** DON-091/029
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:53:02. **Bukatu:** 00:54:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Irratia. Basarri entzuten zuten. Aita erdi bertsolaria zen. Lehengo irratiak nolakoak ziren. Radio San Sebastian hartzen zuten. Ostegun arratsaldetan izaten zen irratsaioa aipatzen du.

24. Kongregazioak eta Juventud Antoniana

- **Erref:** DON-091/031
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:54:46. **Bukatu:** 00:58:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Arantzazuko Amaren kongregaziokoa zen. Hilean behin elkartzen ziren; zinta jartzen zuten. Juventud Antoniana. Abesbatza zuten. Zarautzen egin zuten prozesio bat aipatzen du; abanderada izan zen han. Dantza taldea ere bazuten.

25. Baserritar janzteko baimena

- **Erref:** DON-091/032
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:58:48. **Bukatu:** 01:01:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Baserritar jantzia janzteko baimena behar zen, Gabonetan. Jaiotzarekin irteten ziren. Ez du klandestinitateko mugimendua ezagutu. Fraide batek ikurriña jarri zuen, eta kartzelan sartu zuten.

26. Donostiako Euskal Jaiak

- **Erref:** DON-091/033
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:01:33. **Bukatu:** 01:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Donostiako Euskal Jaiak. Baserritar jantzita joaten ziren Txofreko zezen plazara. Gurdiak eta kalejira.

27. Egiako jaiak, madalenak

- **Erref:** DON-091/034
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:03:34. **Bukatu:** 01:05:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Auzoko jaiak: madalenak. Politikak ez zuen gaurko indarrik. Egun batean Tabakaleran izaten zen musika eta Egiako bidegurutzean beste batean. Kukainak, Loiolako errekan. Sokatira. Zinta karrera, bizikletan.

28. Bizikletarik ez zuten

- **Erref:** DON-091/035
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:05:52. **Bukatu:** 01:06:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Bizikletarik ez zuten, aitzak istripuz mutil bat hil zuelako, kamioi azpira sartu zitzaiona. Ahizpa ezkutuan joaten zen alokairuko dendara.

29. Juventud Antoniana

- **Erref:** DON-091/037
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:06:48. **Bukatu:** 01:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Frantziskotarrenera joaten ziren zinema ikustera. Merkea zen. Antzezlanak egiten zituzten, hantxe bertan, Juventud Antonianarekin. Zahar etxera joaten ziren, kantatzera. Beharra zutenei laguntzen ere ibiltzen ziren; bere lagun batzuek arropa garbitzen zioten emakume bati.

30. Eizmendi sagardotegikoakin harreman ona

- **Erref:** DON-091/038
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 01:08:55. **Bukatu:** 01:12:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mutilak libreago ibiltzen ziren: etxera beranduago joaten ziren. Bere senarra ez da tabernazalea. Egian sagardotegiak zeuden. Eizmendi zen bat, eta bertakoekin harreman handia zuen (ama bertan egon zen neskame): Gregorik zizarra ematen zion. Etxean zer jaten zuten.

31. Arraina plazan eta barazkiak etxean bertan

- **Erref:** DON-091/040
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:13:02. **Bukatu:** 01:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Arraina plazan erosten zuten, San Martinen. Barazkiak eta esnea baserri batetik etxera eramaten zizkieten. Bertako seme bati otoitzak erakusten ibili ziren, Jaunartzea egiteko; hura erdaraz ez zen moldatzen.

32. Egiako dendak

- **Erref:** DON-091/041
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:15:10. **Bukatu:** 01:16:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Auzoko dendak. Janari dendak. Mertzeria bat ere bazen. Asko hazi da auzoa.

33. Perratzailea; Domu Santu Eguna

- **Erref:** DON-091/044
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:18:29. **Bukatu:** 01:20:29

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna

Laburpena:

<p>Perratzailea Karmengo Ama kalean zegoen. Eskolatik irtetea ikusten egoten ziren. Tolare baserria. Baratzeak zeuden. Loreak. Domu Santu Egunean jende asko joaten zen kanposantura; gaizki ikusita zegoen emakumeak tabernara sartzea komunera, eta beraiek komunera joaten uzten zieten. Umeek erramuak eramaten zituzten, sos batzuen truke.</p>

34. Bandera espainolarekin egindako soinekoa

- **Erref:** DON-091/046
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:22:18. **Bukatu:** 01:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Balkoian bandera espainola jartzera derrigortu zituzten; kendu zutenean, harekin soineko gorria egin zion amak. Horia traputarako erabili zuten.</p>

35. Telefonoa eta posta zerbitzua

- **Erref:** DON-091/048
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:23:30. **Bukatu:** 01:24:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Telefonorik ez zuten. Aitaren lantokian bazegoen. Janari dendan bazuten telefonoa. Eskutitz asko idatzen ziren. Postaria joaten zen etxera, eta, buzoirik ez zenez, txilibitua jotzen zuen. Argia eta ura beti ezagutu ditu.</p>

36. Lurra garbitzeko modua

- **Erref:** DON-091/049
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:24:57. **Bukatu:** 01:26:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Etxeko lurra garbitzeko, belauniko ibiltzen zen ama. Zepiloa eta leja.
Ekonomikak deposito bat zuen, ura berotzeko. Kaldera gerora jarri zuten.

37. San Sebastian eguna

- **Erref:** DON-091/052
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:28:37. **Bukatu:** 01:29:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Sebastian eguna ez zuten asko ospatzen. Parte Zaharreko kontua zen, bertako elkarte gastronomikoena. Tanborradak ez ziren hainbeste lehen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com